**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2015KO URTARRILAREN 21EAN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, 2015ko urtarrilaren 21eko 09:35 zirela, lehenengo deialdian eta Julen Mendoza Perez alkate jaunaren esanetara (O.E. BILDU), ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Miren Alazne Korta Zulaika.
- Luis María Díez Gabilondo.
- Jon Txasko Orgilles
- Garazi Lopez de Etxezarreta . (Guztiak O.E. BILDU taldekoak).
- Jose Manuel Ferradas Freijo (EE) .

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Irune Balenciaga Arresek (O.E. BILDU).

Bertan dago, Egintza fedatzeko, Begoña Bueno Barranco idazkari nagusia.

**1. Ohiko Bilkuraren Akta, 2014ko urtarrilaren 17koa irakurtzea eta hala balegokio onartzea.**

Idazkariak Udalbatza 2014ko abenduaren 17an egindako ohiko osoko bilkurari dagokion aktaren berri eman ondoren.

Inolako aldaketarik egin gabe onartu dute.

**2. "Errenteriako etxeetako biohondakinak gaika biltzeko edukiontzien hornidura" adjudikatzea.**

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE JUNTA DE GOBIERNO LOCAL CELEBRADA EL DÍA 21 DE ENERO DE 2015**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:35 horas del día 21 de enero de 2015, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde D. Julen Mendoza Pérez (O.E. BILDU), los siguientes Concejales:

- Miren Alazne Korta Zulaika.
- Luís María Díez Gabilondo.
- Jon Txasko Orgilles
- Garazi Lopez de Etxezarreta . (Todos del grupo O.E. BILDU).
- Jose Manuel Ferradas Freijo (EE).

No asiste excusando su inasistencia, Irune Balenciaga Arrese del Grupo (O.E. BILDU).

Asiste y da fe del Acto la Secretaria General Begoña Bueno Barranco.

**1. Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondientes a la Sesión Ordinaria de fecha 17 de diciembre de 2014.**

Leída por la Secretaria el acta correspondiente a la sesión ordinaria del 17 de diciembre de 2014.

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Adjudicación del contrato de "Suministro de contenedores para la recogida selectiva**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**domiciliaria de biorresiduos."**

2014ko urriaren 22ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, espedientea ireki zen "Errenteriako etxeetako biohondakinak gaika biltzeko edukiontzien hornidura" kontratatzeko, prozedura irekiaren bitartez (hainbat irizpide).

Visto que por Resolución de Alcaldía de fecha 22 de octubre de 2014 se incoó expediente para la contratación del "Suministro de contenedores para la recogida selectiva domiciliaria de biorresiduos, destinados al Ayuntamiento de Errenteria", mediante procedimiento abierto (varios criterios).

Baliozko epean hiru (3) proposamen aurkeztu dira: "PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A."; "CONTENUR, S.L." eta "FORMATO VERDE, S.L.". Azken hau lizitaziotik kanpo gelditu da, bere eskaintza ezarritako lizitazioaren preziotik gorakoa izateagatik.

Visto que en el plazo hábil se han presentado tres (3) proposiciones, correspondientes a "PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A."; "CONTENUR, S.L." y "FORMATO VERDE, S.L.", resultando esta última excluídade la licitación al superar su oferta el importe de la licitación establecido en la licitación.

Kontratazio-mahaiak, 2014ko abenduaren 22an, proposatu zuen kontratua Santiago de Juan Jericó Jaunari, "CONTENUR, S.L."-ren izenean esleitzea, hain zuzen, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena baita, eta 128.020,42 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne).

Visto el acuerdo de la Mesa de Contratación de fecha 22 de diciembre de 2014, proponiendo como adjudicatario del contrato a D. Santiago de Juan Jericó, en representación de "CONTENUR, S.L.", al ser la más ventajosa para los intereses públicos, por un importe de 128.020,42 euros (IVA incluído).

2014ko abenduaren 24ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, proposatutako adjudikazio-hartzaile-ri, eskatu zitzaion, hamar (10) laneguneko epean lizitazioa arautzen duen baldintza-agiriaren 15. Klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez zezan.

Visto que mediante Resolución de Alcaldía de fecha 24 de diciembre de 2014 se requería al adjudicatario propuesto, para que en el plazo de diez (10) días hábiles aportara la documentación indicada en la cláusula 15ª del pliego de condiciones que rige la licitación.

Interesatuak 2014ko azaroaren 17an eskaturiko dokumentazioa ekarri du, baita 5.290,10 euroko zenbateko behin betiko bermea ere.

Visto que el interesado con fecha 12 de enero de 2015 ha presentado la documentación requerida y una garantía definitiva por importe de 5.290,10 euros.

Kontratazio Mahaiaren buruaren proposamenez.

A propuesta de la Presidenta de la Mesa de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Contratación.

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez,

La Junta de Gobierno Local por unanimidad,

**A C U E R D A**

**E R A B A K I D U**

1.- Santiago de Juan Jericó Jaunari, "CONTENUR, S.L."-ren izenean, ADJUDIKATZEA, "Errenteriako etxeetako biohondakinak gaika biltzeko edukiontzien hornidura" izeneko kontratua, 128.020,42 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne) eta 6 asteko iraupenarekin, 4 faseetan, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena baita, betiere baldintza ekonomiko-administratiboen eta Teknikoen agirien arabera, hala nola espedientean jasota dagoen adjudikazio-hartzailearen eskaintzeri jarraiki. (A-1205-2014).

1.- ADJUDICAR a D. Santiago de Juan Jericó, en representación de "CONTENUR, S.L." (CIF-B-82806738) la realización del "Suministro de contenedores para la recogida selectiva domiciliaria de biorresiduos, destinados al Ayuntamiento de Errenteria", al ser la más ventajosa para los intereses públicos por un importe de 128.020,42 euros (IVA incluído) y un plazo de ejecución de 6 semanas en 4 fases, de acuerdo con los Pliegos de condiciones Económico-Administrativas y Técnicas que han regido la licitación, así como con la oferta del adjudicatario, que consta en el expediente.(A-1205-2014).

2.- JAKINARAZTEA adjudikazioa adjudikatzaile izan ez diren lizitatzaile guztiei.

2º.- NOTIFICAR la adjudicación a todos los licitadores que no han resultado adjudicatarios.

3.- Era berean, ESKATZEA adjudikazio-hartzaileari 10 eguneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, bertaratzeko Udaletxe honetan, modu horretan kontratua sinatu dadin administrazio dokumentuan.

3º.- REQUERIR asimismo al adjudicatario para que en el plazo de 10 días a contar desde el siguiente a la notificación de la adjudicación, concurra ante este Ayuntamiento para la formalización del contrato en documento administrativo.

Kontratua sinatzeko ekitaldia Idazkaritza Orokorreko bulegoetan (Herriko plaza z/g - 2. solairua) egingo da Zerbitzuak hala eskatuta.

El acto de formalización del contrato se efectuará en las oficinas de Secretaría General (Herriko Plaza, s/n- 2º planta) a requerimiento del Servicio.

4.- Akordio hau Kontuhartzaile Departamentuari BIDALTZEA adjudikatzaileari argitaratze gastuak, baldintza ekonomiko administratiboen 5. klausulan jasotzen denaren arabera.

4º.- REMITIR el presente acuerdo al Departamento de Intervención a efectos de liquidar al adjudicatario los gastos de publicación de anuncios, tal y como se recoge en la claúsula 5ª del pliego de condiciones



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

económico-administrativas.

5.- ARGITARATZEA kontratuaren adjudikazioa, Errenteriako Udalaren kontratatzailearen profilean iragarki baten bidez.

5º.- PUBLICAR la adjudicación del contrato mediante anuncio en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Errenteria.

**3. "Kultura Kreatiboa" marka eta horren irudiak eta logoak sortzeko proposamena.**

**3. Propuesta de creación de la marca "Kultura Kreatiboa" y las correspondientes imágenes y logos.**

Errenteriaren ezaugarri nagusia da kultura- eta sorkuntza-bizitza zabala duela, neurri handi batean, herriko elkarte-sare zabalari esker. Sare horrek adina guztietako jendea biltzen du eta urtean zehar kultura-jarduera ugari antolatzen ditu.

Errenteria se caracteriza por una gran vida cultural y creativa que se debe en gran parte a su tejido asociativo. Este tejido se caracteriza por el alto grado de asociacionismo en todas las edades y por el elevado número de actividades culturales a lo largo del año.

Nahiz eta bizitasun eta kultura-adierazpen handia izan, kohesio eta koordinaziorik edo komunikazio egokirik ez izateak kultura-programen irudi atomizatu eta lausoa ematen du, eta horrek eragiten du balioa galtzea.

A pesar de la gran vitalidad y variedad de expresiones culturales, la ausencia de cohesión y coordinación, unido a la falta de una correcta comunicación, da una imagen atomizada y difusa de los programas culturales que provoca la pérdida de valor de los mismos

Horregatik guztiagatik, elkarte horiek biltzeko plataforma baten beharra ikusi da, kultura-programa eta -zerbitzuek presentzia eta proiekzio handiagoa izan dezaten, Errenteriaren kultura-irudi eta -identitatea sendotu eta hori gehiago zaintzen, ikusgarriago egiten eta zabaltzen lagunduko baitute, bai eta Kultura Departamentuaren beraren irudia ere.

Por todo ello, se ha visto la necesidad de contar con una plataforma aglutinadora con el objetivo de lograr mayor presencia y proyección de los programas y servicios culturales, que reforzarán la imagen y la identidad cultural de Errenteria y favorecerán un mayor cuidado, visibilidad y difusión de la misma, así como la imagen del propio Departamento de Cultura.

Horrela, bada, proposatzen dugu kulturako marka propioa izatea, KULTURA KREAKTIBOA, kultura-mugimendu guztia biltzen duen plataforma eta marka gisa, udalerriari kultura-nortasun sendoa emateko, baliabideak optimizatzeko, Udalaren kultura-

Así pues proponemos contar con una marca propia de cultura, KULTURA KREAKTIBOA, a modo de plataforma que aglutine todo el movimiento cultural, dotando al municipio de una fuerte identidad cultural, optimizando los recursos, generando sinergias para



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

egunerokotasunaren eraikuntzan era eraginkorrean parte hartzeko sinergiak sortzeko eta horren partaide egiteko herritar guztiak; baina, nolabait esatearren, Kultura Departamentua izango da abiapuntu eta koordinaziogunea. Asmoa da Kultura Kreaktiboa kulturaerreferente bihurtzea, udalerriaren nortasuna sendotzeko, turismo-erakargarritasuna indartzeko eta udalerriaren garapen ekonomikoa laguntzeko, hiritarrak asebeteta eta parte hartzeko eta sortzeko gogoz edukita.

intervenir de forma eficaz en la edificación de la cotidianidad cultural municipal y haciendo partícipe de ella a la colectividad de la ciudadanía, pero que tiene en el Departamento de Cultura su, por así decir, pistoletazo de salida y centro de coordinación. La visión de Kultura Kreaktiboa es convertirse en un referente cultural que refuerce la identidad el municipio, fortalezca el atractivo turístico y favorezca el desarrollo económico del municipio por medio de una ciudadanía satisfecha, participativa, creativa y activa.

Kultura Kreaktiboaren helburu nagusia da udalerria kultura eta kreatibitatea era kohesionatu eta integratuan sustatzen dituen hiria izatea.

El objetivo general de Kultura Kreaktiboa es que el municipio sea una ciudad que promueve la cultura y la creatividad de forma cohesionada e integradora.

Hauek dira berariazko helburuak:

- Kultura-eragileek burutzen duten lana sustatu eta babestea.
- Kultura-kolektiboen arteko komunikazioa hobetzea.
- Herritarren parte-hartzea sustatzea.
- Udaleko departamentuen, erakundeen eta elkarteen arteko lankidetza eta koordinazio estu, iraunkor eta aberasgarria sustatzea, bai eta horien arteko harremanak ere, oro har.
- Herritarrek aisialdiaren inguruan izan ditzaketen eskakizunak identifikatzea.

Los objetivos específicos son:

- Promover y apoyar el trabajo que llevan a cabo los agentes culturales
- Mejorar la comunicación entre diferentes colectivos culturales
- Incentivar la participación ciudadana.
- Impulsar y promover una estrecha, permanente y enriquecedora cooperación, coordinación y colaboración entre los diferentes departamentos del ayuntamiento, entre éste y otras instituciones y asociaciones, así como fomentar las relaciones entre ellas.
- Identificar los requerimientos que a nivel de ocio pueda presentar la ciudadanía



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Kultura-programazio iraunkorra eraikitzea
- Publiko berriak sortu eta leialtzea
- Artea eta kultura herritarrei hurbiltzea
- Udalerriko kultura-bizitza finkatu eta ospea ematea
- Komunikazio-bideak ezartzea eragileen artean, ideiak eta esperientziak trukatzeko plataforma izatea eta topagune izatea, diskurtso eta planteamendu estetiko berrien inguruko ikerketa sustatzeko asmoz.
- Kultura-etxeak espazio bizi, erakargarri eta mugikor bihurtzea. Topagunerako espazio bilakatzea, kultura-ekimenekiko mentalitate irekia mantenduta.
- Publikoa ezagutu eta segmentatzea.

Kultura Kreaktiboak publiko guztiengana iritsi behar du. Beraz, udalerrian bertan eta udalerritik kanpo ikuspegi abangoardista, hurbil (propioa) eta egunerokotik ikusgarri egingo duen irudi bat sortu behar du. Hori da erronka nagusietariko bat, barneko nahiz kanpoko komunikazio-prozesua. Kultura-eragileen arteko komunikazio-harreman ona eta, aldi berean, eragile horiek departamentuarekin duten harremana gakoak izango dira departamentuak nahiz udalerriaren kultura-bizitzak funtziona dezaten.

- Construir una programación cultural estable
- Fidelizar y crear nuevos públicos.
- Acercar las artes y la cultura a los ciudadanos
- Cimentar y prestigiar la vida cultural del municipio
- Establecer vías de comunicación entre los diferentes agentes, servir de plataforma para el intercambio de ideas y experiencias y ser el punto de encuentro queriendo impulsar la investigación de nuevos discursos y planteamientos estéticos.
- Convertir las Casas de Cultura en espacios vivos, atractivos y en movimiento. Hacer que sean lugares de encuentro, con una mentalidad abierta a las diferentes iniciativas culturales.
- Conocimiento y segmentación de los públicos.

Kultura Kreaktiboa debe llegar a todos sus públicos. Por tanto, tiene que generar una imagen que la haga visible dentro y fuera del municipio desde una óptica vanguardista, cercana (propia) y cotidiana. Es precisamente aquí donde encontramos uno de los mayores retos, el proceso comunicativo tanto interno como externo. La buena relación comunicacional entre los distintos agentes culturales y, a su vez, la de estos con el propio departamento será clave para la buena marcha tanto del departamento como de la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

vida cultural del municipio.

Puntu horretan ezinbestekoa da hainbat ekintza gauzatzea, hala nola kultura-edukiak izango dituen **WEBGUNE** bat martxan jartzea eta jarduerak ezagutarazteko ondo definitutako estrategia bat abiatzea. Bestalde, ezinbestekoa da herritarrentzako kultura-arreta hobetzea eta publikoarekin komunikatzeko bi norabidetako komunikazio-bideak sortzea.

En este punto se hace imprescindible llevar a cabo acciones como la puesta en marcha de una **WEB** de contenidos culturales, así como una estrategia bien definida de difusión de actividades y puesta en conocimiento de los mismos. Por otra parte, resulta indispensable mejorar el servicio de atención cultural al ciudadano y generar vías bidireccionales de comunicación con nuestros públicos.

Horrekin batera, herritarrentzako arreta zuzena hobetuko da **Niessen Errenteriako Hiria Kulturgunearen atari berriko** obrarekin; hor emango zaie harrerako eta informazioko zerbitzua

Unido a ésto se va a mejorar la atención directa al ciudadano con la obra del **nuevo vestíbulo del Centro Cultural Niessen Villa de Errenteria** desde donde se va a ofrecer un servicio de recepción e información.

Herritarren kolektibo guztien artean parte-hartzea sustatzeko eta udalerriaren kultura-nortasuna indartzeko, Errenteria inguruko hirien testuinguruan koka dadin nortasun propio bereizia baliatuta, Donostia Kulturaren eredua erabili dugu eta proposatzen dugu **kultura-txartel** berria sortzea eta deskontuak eta bestelako onurak eskaintzea erabiltzaileei. Halaber, liburutegiko maileguetarako ere erabili ahal izango da.

Con el objetivo de promover la participación entre todos los colectivos de ciudadanos y reforzar la identidad cultural del municipio, que sitúe a Errenteria en el contexto de las ciudades del entorno a través de una identidad propia diferenciada, se ha seguido el modelo de Donostia Kultura y se propone la creación de una nueva **tarjeta de cultura** que ofrezca una serie de descuentos y otros beneficios a sus usuarios y que sirva también para el préstamo de libros en la biblioteca.

Kultura-espazioetarako **logotipo berriak** sortuta, irudi bateratzailea sustatzen da, baina, aldi berean, izaera propioa ematen zaio espazio bakoitzari.

Con la creación de **nuevos logotipos** para los diferentes espacios culturales se fomenta una imagen unificadora pero dotando de su propia personalidad a cada uno de estos espacios.

Horrela, bada, **Kultura Kreaktiboa**rekin kultura-hiriaren marka diseinatuko da eta webgune berria eta txartela izango dira aurreragoko ekintzen abiapuntu.

Así pues, con **Kultura Kreaktiboa** se trata de diseñar una marca de ciudad cultural, que toma la nueva web y la tarjeta como puntos de partida de futuras acciones complementarias.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Kulturako teknikariak jakinarazi du komeni dela **Kultura Kreaktiboa** kulturako marka berria, horren logotipoa eta logotipo horren aldaketak udalerriko kultura-espazio desberdinetan erabili beharreko logotipo horren aldaketak ezartzea, eranskinean adierazitakoaren arabera, irudi bateratua lortzearren.

La Técnica de Cultura ha informado de la conveniencia de adoptar **Kultura Kreaktiboa** como nueva marca de cultura, así como su correspondiente logotipo y sus respectivas variaciones para los diferentes espacios culturales del municipio, tal y como se presenta en el documento anexo, con el fin de lograr una imagen unificadora.

Udal-aholkulari juridikoaren 2015ko urtarrilaren 8ko txostena ikusita.

Visto el informe de 8 de enero de 2015 de la Asesora Jurídica Municipal.

Gai honetaz 2014ko azaroaren 20ko Kultura Batzordean hitzegin zela ikusita.

Visto que el tema fue tratado en la Comisión de Cultura de fecha 20 de noviembre de 2014.

Hezkuntza eta Kulturako ordezkariaren proposamenez.

A propuesta de la Delegada de Cultura y Educación.

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez,

La Junta de Gobierno Local por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**Lehena:** Onartzea "Kultura Kreaktiboa" marka, horren irudia eta kultura-espazio hauetarako logotipo-aldaketak: Merkatuzar, Errenteria Hiria Niessen Kulturgunea, Lekuona, Xenpelar Etxea, Kapitain etxea, San Markos, Reina Aretoa, liburutegia, Fanderiako Errota eta Torrekua.

**Primero:** Aprobar la marca "Kultura Kreaktiboa", su imagen y las variantes de logotipos para los siguientes espacios culturales: Merkatuzar, Centro Cultural Niessen Villa de Errenteria, Lekuona, Xenpelar Etxea, Kapitain etxea, San Marcos, Sala Reina, la biblioteca, Molino de Fandería y Torrekua.

**Bigarrena**: "Kultura Kreaktiboa" eta logo ezberdinen jabetza industrialeko eskubideen erregistroa agintzea.

**Segundo**: Ordenar el registro de los derechos de propiedad industrial de la marca "Kultura Kreaktiboa" y los diferentes logos.

**Hirugarrena:** Erabaki hau jakinaraztea udaleko sail eta azpisail ezberdinei.

**Tercero**: Comunicar el presente acuerdo a las diferentes áreas y subáreas municipales.

**4. Zigor espedientearen erresoluzio**

**4. Propuesta de resolución de expediente**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**proposamena.**

2013ko irailaren 29an, 10:20an, udaltzaingoaren bulegoetan pertsona bat aurkeztu zen zakur batek izandako tratua txarrak salatzeko, bera lekuko izan zelarik. Kontatutakoaren arabera, egun berean , 09:30 aldera, Jose Manuel Zamarreño parkean paseatzen ari zen eta bertan kusi zuen zakur baten jabea eta lagun zuen adin txikiko bat hasi zirela zakurra gaizki tratatzen, itxuraz inolako arrazoirik kolpean ematen eta neurririk gabe. Salatzaileak aurpegiratu egin zien eta eztabaidatzen hasi ziren. Ertzaintzaren patruila batek, bertatik pasatzen ari zela, parte hartu du eta bi aldeak identifikatu ditu. Zakurraren jabea honakoa da: YESICA XIOMARA ARCE JARAMILLO.

Gertakari horiek hutsegite larria eratu dezakete, hala ezartzen baitu 1997ko urriaren 31ko Zakurrak Edukitzea eta Zaintzeko Udal Ordenantza Arautzailearen 30. art.ak, ordenantzaren 10.1 artikulua urratzeagatik. Bertan ezartzen du "debekaturik dagoela zakurrak gaizki tratatzea edo justifikatu gabeko sufrimendua edo kaltea edo larritasuna eragin dezakeen edozein praktika jasanaraztea", 300 eta 1.500 euro arteko isunen bidez zigor baitaiteke, Ordenantza horren 32 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta 6/1993 Legearen arabera, urriaren 29koa, Animaliak Babesteari buruzko dena.

Udaltzaingoko Ofizialburuak Honi buruz txostena egin du, 2014ko maiatzaren 23an.

Udal Aholkulariak ere txostena egin du, 2014ko maiatzaren 19an.

Trafiko eta Garraioetako batzorde informatiboak 2014ko ekainaren 13an aldeko irizmena eman du.

**sancionador.**

Sobre las 10:20 del día 29 de septiembre de 2013 se presenta en las dependencias de la Policía Local una persona para denunciar el maltrato a un perro del que ha sido testigo. Según relata, sobre las 09:30 de ese mismo día se encontraba paseando por el parque José Manuel Zamarreño cuando ha observado cómo la dueña de un perro y una menor que le acompañaba comenzaban a maltratar al perro, golpeándolo sin causa aparente y de manera desmesurada. La denunciante les ha recriminado los hechos y han comenzado una pequeña discusión. Una patrulla de la Ertzaintza, que pasaba por el lugar, ha intervenido identificando a ambas partes, siendo YESICA XIOMARA ARCE JARAMILLO la propietaria del perro.

Estos hechos podrían ser constitutivos de una falta grave, tal como lo dispone el art. 30 por infracción del art. 10.1 de la Ordenanza Municipal Reguladora de la Posesión y Cuidado de los Perros de fecha 31 de Octubre de 1997, que dispone que está prohibido "maltratar a los perros o someterlos a cualquier práctica que les pueda producir sufrimiento o daño y angustia injustificada", sancionable con multa comprendida entre 300 € y 1500 €, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 32 de la citada Ordenanza, y en base a la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales.

Con fecha 23 de mayo de 2014 el Oficial Jefe de la Policía Local ha emitido informe al respecto

La Asesora Jurídica municipal ha emitido informe con fecha 19 de mayo de 2014.

La Comisión Informativa de Tráfico y Transportes ha emitido dictamen favorable con fecha 13 de junio de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

2014.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko uztailaren 2koa, erabaki zuen zehapen-espedienteari hasiera ematea, 2014ko uztailaren 11n bete zena.

Con fecha 2 de julio de 2014 la Junta de Gobierno Local ha acordado incoar expediente sancionador que se cumple con fecha 11 de julio de 2014.

ARAU HAUSTE MOTA

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Interesatuak alegazioak aurkeztu zituen 2014ko abuztuaren 4an. Bertan adierazi zuen salatutako gertakariak ez zirela horrela izan eta gertatutakoaz bere bertsioa eman du, salatutako gertakariaren antz apurrik ere ez duena, hain zuzen ere.

La interesada ha presentado alegaciones el 4 de agosto de 2014, en las que indica que en absoluto son ciertos los hechos denunciados y da su versión de lo sucedido que difiere totalmente con el hecho denunciado.

Dagoen froga bakarra salatzailearen bertsioa da.

La única prueba que se tiene es la versión de la persona denunciante.

Instruktoreak Pablo Martín Remiro jaunak erresoluzio proposamena egin du 2014ko abenduaren 15ean.

El Instructor D. Pablo Martín Remiro ha realizado la propuesta de resolución con fecha 15 de diciembre de 2014

Gai honen berri eman zen 2015eko urtarrilaren 16ko Trafiko eta Garraio batzordean.

Visto que se ha dado cuenta en la Comisión de Tráfico y Transportes de fecha 16 de enero de 2015.

Trafiko eta Garraioko batzordeburuak proposatuta.

A propuesta del Presidente de la Comisión de Tráfico y Transportes.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

La Junta de Gobierno Local por unanimidad,

E R A B A K I D U

A C U E R D A

1.- Onartzea txakurraren jabeak aurkeztutako alegazioak

1.- Estimar las alegaciones presentadas por la propietaria del perro

2.- Amaitutzat ematea YESICA XIOMARA ARCE JARAMILLO(r)i irekitako Z - 8/2014 espedientea.

2.- Dar por finalizado el expediente Z - 8/2014 incoado a YESICA XIOMARA ARCE JARAMILLO.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:45 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 09:45 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

folios números ______ al _____ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net